

TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● DYA: 943 464622 ● Autobusak: Herri barruko: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 ● Anbulatorioa: 943 006666 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103
FARMAZIAK ● Eguz: Bulnes Etxeberri 1 - 943 557738 ● Gauz: Correa Perkaiztegi 8 - 943 336022

EGURALDIA
GAUR Zerua lainotuta izango da eta euri arina botako du. Aurreko egunean baino hotz gutxiago egingo du. Temperatura maximoak: 8 °C eta minimoak: 3 °C.

BIHAR Giroak epeltzera egingo da. Euria egingo du zertxobait eta batez ere goizean. Temperatura minimoa: 2 °C eta maximoa: 8 °C.

Etxeberri urbanizatzeko eta Goiz Eguzkiko bolatokia estaltzeko proiektuak onartu ditu Udalak

Hainbat proiektutarako diru laguntzak emango ditu Espainiako Gobernuak. Bi proiektu hauek onartu eta dirulaguntza eskatzea erabaki du Udalak

GOBERNU Batzarra izan da aste honetan eta bertan onartu dira Etxeberri auzoa urbanizatzeko proiektuaren aurreneko fasea eta Goiz Eguzkiko bolatokia estaltzeko proiektua. Espainiako Gobernuak diru laguntzak emango dizkie udaletxei hainbat proiektu egiteko, eta hori dela eta, bi proiektu hauek onartu eta dirulaguntza eskatzeko asmoa du Udalak. Eskaria onartuko balitz, Espainiako Gobernuak bi proiektu hauek %100ean finantziatuko lituzke. Etxeberri urbanizatzeko lanen aurreneko faseak, 510.457 euroko aurrekontua du eta Goiz Eguzki estaltzeko lanek 132.789 eurokoa.

Hil honetako Plenoko hainbat erabaki

Joan den larunbateko Kronikan hil honetan izan den Plenoko hainbat erabaki azaldu ziren. Alde batetik, Kaxkoko kaleetan kotxeak sartzea kontrolatzeko ordenantza onartu zela azaldu zen. Zehazki hasierako onarpena eman zaio eta orain

erakusketa publikoan jarri dute. Bestalde, Torturaren aurkako mozioa onartu zela ere azaldu zen.

Play dantzalekua

Pleno horretan beste hainbat erabaki ere hartu ziren, horien artean, Play dantzalekua erabilerarekin lotutakoa. Gaur egun, Play dantzalekua hutsik dago, eta dantzalekua eta antzeko jarduerak egiteko bakarrik erabili daiteke. Jabeek Udalarik kontsulta egin diote, jakiteko ia posible ote den zerbitzu arloarekin lotutako erabilera ematea eremu horri (hotela, merkataritza...). Udalak aldaketa hau jasotzeko asmoa du Arau Subsidiarioak berridazterakoan. Erabaki hau jendaurrean jarri da eta alegazioak egiteko aukera izango da.

Ereñotzun babes ofizialeko etxebizitzak

Plenoan onartu zen baita ere, Ereñotzuko babes ofizialeko etxebizitzaren ondoko eremuari eragiten dion puntu bat. Eremu horretan billak egitea

zegoen aurreikusita, baina konstruktoreak babes ofizialeko etxebizitzak eraiki nahi lituzke bertan. Zehazki 4 bloketan, 16 etxebizitza egitea aurreikusi du.

Herri barruko autobusaren txartelaren prezioa

Herri barruko autobuseko txartelaren 0.10 igotzea ere onartu zen Plenoan. Lehen 0,60 balio zuen eta orain 0,70 balio du.

Atletismo pistaren inguruko hitzarmena

Bestalde, Kirol Patronatuaren eta CD Hernani Atletismo taldearen arteko hitzarmena ere onartu zen, Plenoan. Hitzarmen honetan zehazten da atletismo taldeak atletismo pista erabiltzeko dituen esku-bideak eta betebeharrak, alde batetik. Eta bestetik, Kirol Patronatuak hartzen dituen konpromezuek.

Ikuskizunen prezioak

Ikuskizunetarako sarreren prezio berriak ere onartu ziren Plenoan. ■

Dantza, olerkia, musika eta irudiak aukeran seigarren Errapia festan



Nahia eta Lorea, larunbatean egin zuten dantza emanaldian. ■

SEIGARREN urtez, herriko artisten festa izan zen joan den astebukaeran Zikuzulon, Zikuñagako artelekuan. Goizean Zikuzuloko paretan muralak margotu zituzten eta haur jolasak ere antolatu zituzten. Ederki bazkaldu ondoren, Jon Zabaletaren irudi eta abesti emanaldia izan zen. Segidan, Nahia eta Lorea dantza saioa egin zuten. Bertaratu zirenak txunditu zituen emanaldi honek, izan ere Lorea gurgildun aulkian ibiltzen da. Biolin eta kitarra emanaldia izan zen gero eta atzetik Haizea Arregi eta Joxemiren poesia eta musika emanaldia. Festari amaiera Barruren musika elektronikoa saioak eman zion. ■

❖ BAI EUSKAL HERRIARI

Euskal Herriko selekzioaren aldeko manifestaziora joateko deialdia

Euskal Herriko selekzioaren aldeko manifestazioa izango da bihar Bilbon eta Hernaniko Bai Euskal Herriari taldeak joateko deia luzatu die hernaniarrei. Manifestazioa bihar arratsaldeko 17:30etan aterako da, Bilboko Aita Donostia plazatik. ■

❖ PRESOK

Euskal presoaren aldeko, eta bereziki, Kepa Pikabea, Txelis, Carmen Gisasola eta Joseba Urrusoloren aldeko bazkaria antolatu dute Demoek iganderako

Igandean euskal presoaren aldeko bazkaria antolatu dute Demoek (desobedientzia zibilaren aldeko mugimenduak) euskal preso politikoak eta haien familiei elkartzasuna adierazteko, Elizaberri Mugerreko Ibar trinketean. Bazkari honetan bereziki Kepa Pikabea, Epeleko presoak izango dute gogoan, eta harekin batean Txelis, Carmen Gisasola eta Joseba Urrusola. Demoek igandera-ko zabaldu duten deialdian azaltzen dutenez, «presoek egindako irakurketa politikoak Demoen kolektiboak egin duenarekin puntu amankomun asko ditu». Aipatu dutenez, «irakurketa politiko horrek gaur egun borroka armatua tresna kontra-emanorra dela adierazten du, iragana gaitzesi gabe, gure indar harremana ahultzen duena eta Estatuena indartzen». Omenduko dituzten preso- en hainbat senitarteko ere izango dira bazkarian. Bazkarira joan nahi izanez gero, Demoek telefono zenbaki bat jarri dute eskura: +33 5 59 46 10 82 edo harremanak@demoak.org. ■

❖ MENDIRIZ MENDI

Santio biderako izena ematea

Santio Bideko laugarren etapa egingo dute igandean, Mendiriz Mendiko kideek, Hernanitik Alegira. Joan nahi duenak, gaur du azken aukera izena emateko. 20:00etatik 21:00etara, bulegoan. ■

❖ SAN JOAN KONPARTSA

Santo Tomasetako saria jaso du jabeak

Santo Tomasetako jaialdia antolatu zuen joan den abenduaren 20an San Joan Konpartsa. Txerrikume baten zozketa izan zen eta jakinarazi dute saritua agertu dela. ■

❖ ORKOLAGA

Orkolagako Santo Tomasetako errifa

Orkolagako Santo Tomasetako errifan, zenbaki saritua 1132 izan da. Saria Anboto tabernan jaso behar da eta bihar bukatuko da epea. Bestalde bihar mus azkarra jokatu da Anboto tabernan. Izena 15:30ak aurretik eman behar da. ■

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Etxe berria estrenatu ezazu, hemendik 18 hilabetera, 2 logela, aszensora, 60m² (249.000euro). Deitu: 671 124 594.

Etxe konponketak egiten dira: iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

BIDEA masajeak. Santa Barbara auzoa. Tel.: 656 78 64 15 (aurretik deitu).

Xanti Masajista. Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropraxia, osteopatia xamurra, bioaktibadore neurologikoa, kinesiologia, reflexologia. Deitu: 943 33 07 35 (Lizeaga, 2 P-1 B).

Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, prezio egokituak eta personalizatuak. Gaztetzeko tratamendua "Fotorejuvenecimiento", Antiacne tratamendua, "Manchas". Plataforma bibratzaila. Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafooterapia, kiropraxia, errelejo ajustea eta ber- tebrala, kromoterapia, drainaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Itziarroyo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta ber-tebrala, reflexo- logia, auriculoterapia,.... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)